



# 2020-21 Ikasturtearen hasiera

Kontingentzia plana eta kurtso hasierako  
eszenatokiak

## AURKIBIDEA

SARRERA .....	2
OSASUN NEURRIAK .....	2
1. IKASTETXERA SARRERA.....	2
2. HIGIENE NEURRIAK ETA ESKUAK GARBITZEA .....	3
3. HIGIENE PERTSONALERAKO MATERIALA .....	6
4. ELKARRENGANDIKO DISTANTZIA .....	6
5. ESPAZIOEN AFOROA ETA ERABILERA .....	6
6. COVID-19 KASUAK SORTU EZKERO JARDUTEKO PLANA .....	6
IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA .....	7
1. ESZENATOKIA .....	7
2. ESZENATOKIA .....	8
Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta.....	8
3. ESZENATOKIA .....	8
1. LAN ANTOLAKETA .....	8
ATSEDENAK.....	9
KONTUTAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK .....	9
1. EUSKARA INDARTZEA .....	9
IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA .....	9
LAGUNTZA- ETA JARRAIPEN-BATZORDEA.....	9

## SARRERA

Kontingentzia Plan hau hainbat dokumentu kontuan hartuta sortu dugu:

- Hezkuntza Sailaren protokoloa
- Lanbide Heziketako protokoloa
- Lasarteko Berritzeguneko ikastetxeentzat laguntza dokumentua
- Kurtso Hasierako Ebazpena
- Talaia BHIko 19-20 ikasturteko Kontingentzia Plana

Garrantzitsua da kutsatzeko arriskuak minimizatzea eta ahalik eta azkarren eta osasunerako segurtasun-berme handienekin ikastetxeetako ohiko jarduerara itzultzea. Hori lortzeko, ezinbestekoa da irakasle guztien, administrazio eta zerbitzuetako langileen, ikasleen, gurasoen, legezko tutoreen eta ikastetxearekin harremana duten pertsona guztien erantzunkidetasuna.

Plan honetan, 3 eszenatoki posible aurreikusten ditugu:


- “Normaltasun” egoeratik hurbilago dagoen bat, hau da, zentroen ohiko funtzionamendutik hurbilago dagoena. (1. eszenatokia)
- Egunerokotasun horretatik urrunen dagoena izango litzateke, konfinamendu zorrotzena eta irakaskuntza presentzialaren ezintasuna ekarriko lukeena (3. eszenatokia)
- Aurreko bien bitartekoa izango litzateke, hau da, eszenatoki mistoa, irakaskuntza presentziala baina mugatua eta online irakaskuntzarekin konbinatua (2. eszenatokia). Eszenatoki horiek aurrerago zehaztuko ditugu.

## OSASUN NEURRIAK

### 1. IKASTETXERA SARRERA

Eraikinek dituzten sarrera guztiak erabiliko dira pilaketak ekiditeko. Ikastetxea 7:45etatik irekita egongo da, ikasleak mailaka sar daitezten.

ESKOLA EREMURA SARRERA/IRTEERA	SARRERA/IRTEERA	MAILA
Aldapatik	A eraikineko ATZEKO SARRERA	DBH1
Aldapatik	A eraikineko SARRERA NAGUSIA	DBH2
Aldapatik	D eraikineko ATZEKO SARRERA	DBH3
Langatik	D eraikineko SARRERA NAGUSIA	DBH4
Langatik	C eraikineko SARRERA NAGUSIA	BATXI 1
Langatik	C eraikineko SARRERA NAGUSIA	BATXI 2



## 2. HIGIENE NEURRIAK ETA ESKUAK GARBITZEA

- Eskuen garbiketa: ikastetxean sartu eta ateratzerakoan, kanpoan egon ondoren, besteekin kontaktua izan ondoren, komuna erabili baino lehen eta ondoren, tresna eta gune komunak erabili ondoren, zerbait jan baino lehen, ... **(1. Irudia)**
- Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez. Era berean, espazioen aireztapen naturala areagotuko da, barruko airea berritzen laguntzeko.
- Ikastetxean, **MUSUKOA DERRIGORREZKO**A izango da. **(2. Irudia)**
- Irakasle eta langile ez irakasleei muxuko bat eguneko banatuko zaie.
- Tailerretan, laborategian... eta objektuak partekatu behar diren guztietan, ikasleek eskuak garbitzeko neurriak zorrotz beharko dituzte, eta musukoa ere erabili beharko dute.
- Gela bat talde batek baino gehiagok erabiltzen dutenean, ikasleak aldatzen direnean, txanda batetik bestera garbitu eta aireztatuko da.

## 1. Irudia. Eskuak garbitzeko modua



2.irudia MUSUKOAREN erabilera

**NOLA?**

Garbitu eskuak erabili aurretik eta ondoren

Kendu belarrietako kordeletatik hasita

Berrerabilgarria bada, gorde ezazu poltsa itxi batean

Ondo estali ahoa, sudurra eta kokotsa, aurpegiaren eta maskararen artean tarterik utzi gabe (ez ipini ez lepoan ezta ahoan)

Aldatu hezea dagoenean edo hondatzen denean. Botatzerako orduan, sartu poltsa itxi batean esposizioa saihesteko

**EZ UKITU AURREALDEA. EGITEN BADUZU, GARBITU ESKUAK**

- Eskularruek birusa transmititu dezakete, zure eskuen antzera, garbi ez badaude
- Maskararen erabilera eskuak garbitzearekin batera joango da beti

Beraz ezinbestekoa da:

- Kontaktu-kopurua murriztea eta 1,5 metroko segurtasun-tartea mantentzea pertsonen artean.
- Maskarillak erabiltzea eta arnas higiena (doministiku edo ez tul egitean, maskara erabili ezean, garrantzitsua da erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo, bestela, ukondoa tolestea)
- Espazioak sarritan aireztatzea eta zentroaren garbiketa sakona.
- Kudeaketa egokia eta goiztiarra, kasuren baten susmoa dagoenean.

### 3. HIGIENE PERTSONALERAKO MATERIALA

Ikastetxeak higie-ne pertsonalerako material hau eskura izango du:

- Eskuak garbitzeko xaboia, banakako dispensazioduna izango da (komunetan egongo da).
- Oinarri alkoholikoko prestakinak. (Gela guztietan egongo da, baita ikastetxeko sarreretan ere).
- Erabilera bakarreko paperezko eskuoihalak (gela guztietan egongo da).
- Zakarrontziak. (gela guztietan)

### 4. ELKARRENGANDIKO DISTANTZIA

Orokorrean, **1,5 metroko distantzia** mantenduko da, eskolan lagunen artean gertatzen diren elkarrekintza guztietan. Aipatu segurtasun-distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, higie-ne neurri egokiak ezarriko dira kutsatzeak saihesteko. Azken neurri horien artean dago maskarillaren erabilera.

Ikastetxeko sarrera eta irteeretan, 1,5 m-ko distantzia ere mantenduko da.

### 5. ESPAZIOEN AFOROA ETA ERABILERA

- Irakasleek eta administrazioko eta zerbitzuetako langileek erabiltzeko geletan, pertsonen arteko distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izango da. Distantzia hori mantendu ezin bada, maskarillak erabili beharko dira nahitaez.
- Komunak duten aforoaren arabera erabiliko dira, eta itxaronaldian pertsonen arteko distantzia mantenduko da.
- Igogailuak banaka erabiliko dira.
- Ikastetxeko espazio itxien aireztapena handituko da, barruan airea berritzen laguntzeko.

### 6. COVID-19 KASUAK SORTU EZKERO JARDUTEKO PLANA

- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.

- Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- Zehazki, **gaitzaren sintomak antzemanaz gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari, gehienbat ikaslea adingabea denean. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- **Gaitzaren sintomak** eskolako langileren batean agertuko balira, honek eskola utzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.
- COVID-19 kasu bat baieztatzen bada ikastetxeko langileen artean edo ikasleen, gainerako lankideen edo zikloa egiten ari diren taldeko kideen artean, kontaktuz hartuko dira, eta etxeko berrogeialdia egin beharko dute 14 egunez, azken aldiz elkarrekin egon ziren egunetik aurrera.

## IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA

- Klaseak hasi aurretik, irakasleek (gaitasunen oinarritzko mailak lortzen direla bermatzeko) aukeratuta izango dituzte ikasketa-maila bakoitzeko funtsezko alderdiak, (lorpen-adierazleetan zehaztuta dago).
- Klase-ikasgela bakoitzeko irakasle-taldeen koordinazio-bilerak egingo dituzte, honako helburu hauekin:
  - Ikasleei buruzko informazioa partekatu eta taldeko eta banako lorpen eta beharren balorazioa egitea.
  - 2019-2020 ikasturte-amaierako aldi eginiko lanak partekatzea, haien koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko eta hainbat eremu/arlo/gaitatik oinarritzko alderdiak sendotzen direla bermatzeko.
  - Irailean, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea komenigarria izateaz gainera, aldi ez-presentzian landutako minimoak berrikusiko dira.

Lehen aipatu dugun bezala, hiru eszenatoki aurreikusten ditugu:

### 1. ESZENATOKIA

Irakaskuntza presentziala aurreikusten da. Aurreko puntuetan agertzen diren neurriak kontuan hartu beharko dira.



## 2. ESZENATOKIA

Gure taldeak 25/30 ikaslekoak dira orokorrean. Hori dela eta talde erdiak aste batean eskola presentzialak izango ditu (13 talde) eta beste erdiak on line lan egingo du. Aste batean 1. DBHko, 3. DBHko eta 1. BATXILERREKO taldeak eskolak ikastetxean jasoko dituzte eta hurrengo astean txandakatuko dira mailak. Irakasleek egokitu beharko dituzte haien metodologia. Dena ikasgaien programazioetan jasoko da.

### Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta

2. eszenatokirako aldaketa gertatzen bada, ikasle hauen presentzialtasuna lehenetsiko da, betiere osasun-agintarien jarraibideen arabera, eta familiei jakinarazi beharko zaie, edozein agertokitan ikastetxera joateko baldintzak zeintzuk diren (ordutegiak, zerbitzuak, higiene-neurriak, etab.).

## 3. ESZENATOKIA

Nahiz eta irakaskuntza ez-presentzialaren jarduera izan, ikasleak telematikoki konektatzeko ordutegia ezarriko da, hezkuntza-jardueraren erritmoari eta jarraipenari eusteko.

## 1. LAN ANTOLAKETA

	1.Eszenatoki-Presentziala	2.Eszenatoki-Erdi Presentziala	3.Eszenatoki- On line osoa
<b>Talde antolaketa</b>	Talde guztiak ikastetxean egongo dira. 26 talde	Gure taldeak 25/30 ikaslekoak dira orokorrean. Hori dela eta talde erdiak aste batean eskola presentzialak izango ditu (13 talde) eta beste erdiak on line lan egingo du. Aste batean 1. DBHko, 3. DBHko eta 1. BATXILERREKO taldeak eskolak ikastetxean jasoko dituzte eta hurrengo astean txandakatuko dira mailak. Irakasleek egokitu beharko dituzte haien metodologia. Dena ikasgaien programazioetan jasoko da.	19-20 ikasturtean diseinatu genuen prozedura jarraituko dugu. Ordutegia mantenduko da, klase guztiak on line izango dira.
<b>Erabili beharreko gelak</b>	Ikastetxeko gela guztiak erabiliko dira. Talde bakoitzak bere erreferentziako gela bat izango du. Ordutegiak egiterakoan ahalik eta lotura gutxien sortzen saiatu gara baina dena den lotura ugari daude.	Ikastetxeko gela guztiak erabiliko dira.	Ikasleek etxean egongo dira, irakasleak ikastetxean badaude dagokion gela erabiliko dute eta etxetik lan egiteko agindua badago ez dira gelarik erabiliko.
<b>Jangela</b>	Txanda bakarrean eta osasun aholkuak betez.	Ez dago	Ez dago
<b>Taldeari dagozkion komuna</b>	1. DBH A eraikineko 2. solairukoak 2. DBH A eraikineko 1. solairukoak 3. DBH D eraikineko 1. solairukoak 4. DBH D eraikineko 0. solairukoak 1. BATXI C eraikineko 0. solairukoak 2. BATXI C eraikineko 1. solairukoak	1. DBH A eraikineko 2. DBH A eraikineko 3. DBH D eraikineko 4. DBH D eraikineko 1. BATXI C eraikineko 2. BATXI C eraikineko	Ez dago
<b>Zirkulazioa</b>	Ikastetxe barruko zirkulazioa araututa dago. Ibilbideak markatuta daude (orokorrean eskumako aldetik zirkulatuko da beti). Idazkaritzan zain egoteko zoru-markak egin dira.		

## ATSEDENAK

Ikasturte-hasieratik, 1. eszenatokian, jolaserako aldiak ahalik eta ikasle-kopuru txikienak aldi berean batzeko moduan antolatuko dira, pilaketarik egon ez dadin. Ikus BIKAINTRASUNERANTZ PROIKETUA 2020-2021.

## KONTUTAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

### 1. EUSKARA INDARTZEA

Ikastetxetik ekintzen programa berezia bultzatuko da euskara indartzeko ikasleek ahozko “input”-a jasotzeko aukerak dituztela bermatzeko.

## IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

- ★ Konfinamendu garaian garatu ditugun jarduerak modu kritikoan aztertu. Praktika onak identifikatu eta hobetzeko arloak antzeman.
- ★ Irakasle bakoitzak ikasleekin landu dituen estrategiak eta tresnak partekatu.
- ★ Irakasleen gaitasun teknologikoaren diagnostia egin eta gai horri buruz prestakuntza gauzatu.

## LAGUNTZA- ETA JARRAIPEN-BATZORDEA

JARRAIPEN BATZORDEA	
ZUZENDARIA	KEPA ZUÑIGA
IKASKETA BURUA	KARMEN INSAUSTI
LAN-ARRISKUEN ARDURADUNA	JULEN GOIKOETXEA
BERRITZEGUNEKO ERREFERENTEA	ANA ARITZETA
IKUSKARIA	LURDES ISASA
OOGko KIDEA	JUNKAL AMUNARRIZ